

## 21. inprimakia

### Erkidegoak onartutako gastu orokorrak edo erreserba-fondoa ez ordaintzeagatiko erreklamazioa egiteko **Prozedura Monitoriorako hasierako eskaera**

.....(E)KO LEHEN AUZIALDIKO EPAITEGIARI

Nik, ..... jaunak/andreak (NAN zkia: ..... Helbidea: .....(e)ko  
..... kalea, ..... zk.) ..... kaleko  
..... zenbakiko **etxeko Jabeen Erkidegoa** ordezkatuz, eta Jabeen Erkidego horren presidente gisa,  
.....(ea)n izendatua, Epaitegian aurkeztu naiz eta  
honako hau adierazi dut:

Idazki honen bitartez, eta Prozedura Zibilaren Legearen 814. artikuluan eta Jabetza Horizontalaren 21. artikuluan ezarritakoari jarraiki (urtarrilaren 7ko Prozedura Zibilaren 1/2000 Legearen azken xedapenetan lehenak aldatu zuen lege hori), **Prozedura Monitoriorako lehen eskaera** egin dut ..... jaunaren/andreaken aurka (NAN zenbakia: ..... Helbidea: ..... kalea, ..... zk., ..... pisua/lokala), erakin honetako ..... solairuko ..... eskuan kokatutako etxebizitzaren/lokalaren jabe den aldetik, higiezinaren, haren zerbitzuak, kargak eta erantzukizunak behar bezala mantentzeko gastu orokorretarako eta erreserba-funtsetarako dirua ordaintzeko betebeharra ez baitu bete.

Demandatuak zordundutako zenbatekoa honako hau da:

(Dagokiona aukeratu)

- a) .....(e)ko .....(e)tik .....(e)ra bitarteko kuota arruntak, horietako bakoitza ..... eurokoa.
- b) Teilatua, etxaurrea, kanalizazioak, eta abarrekoak konpontzeko aparteko derramak, .....(e)ko bileran onartuak, eta (hilabeteak adierazi) dagozkienak; derrama bakoitzaren zenbatekoa: ..... euro.
- c) Teilatua, etxaurrea, kanalizazioak, eta abarrekoak konpontzeko obretan, demandatuarena den elementu pribatiboari dagokion zenbatekoa; obra horiek .....(ea)n egin zen Batzarrean onartu ziren, eta horretaz gain, gastua .....epetan ordainduko zela adostu zen; gaur egun, .....epetara dagokion ..... euroko zenbatekoa ordaindu gabe dago
- d) Ordaintzeko aurreko errekerimenduaren zenbatekoa (notario-errekerimendu, adiskidetze-ekitaldi, fax, burofax, edo dena delakoa adierazi) bidez gauzatua.

Demandatuak zordundutako guztizko zenbatekoa ..... eurokoa da.

Jabetza Horizontalaren Legearen 21-2 artikuluan eta Prozedura Zibilaren Legearen 812-2 2 artikuluan ezarritako auzibideragarritasun-baldintza betez, idazki honi erantsi zaio, Batzarrak Jabeen Erkidegoaren zorraren likidazioa onartzeko hartutako **Erabakiaren ziurtagiria** erantsi zaio idazki honi (1. agiri gisa); ziurtagiri hori Erkidegoaren idazkariak sinatu du, presidentearen oniritzia du, eta eraginpeko jabeari erabaki hori 9. artikuluan ezarritako moduan jakinarazi zaiola jasotzen du.

Era berean, 2., 3. eta 4. agiri gisa, bertaraturatutako presidente izanaren, Erkidegoak kuota arruntak edo/eta aparteko derramak onartzeko egin zuen bileraren aktaren, eta obraren egikaritzearen fotokopiak erantsi dira. Agiri horiek originalekin alderatzeko, Erkidegoaren Akta Liburua ere erantsi da, agiri horien fede ematea eta horren ondoren, Akta Liburu hori itzul diezaguzuen eskatzen dizuegu, beste hainbat erabilerarako behar baitugu.

Orobat, 5. agiri gisa, ordaintzeko aurreko errekerimenduak Erkidegoari eragin dizkion gastuen egiaztagiria ere erantsi dugu, eta 6. agiri gisa, demandatuaren jabetzaren erregistro-inskripzioaren kopia.

Azaldutako guztiagatik, honako hau

ESKATZEN DIOT EPAITEGIARI: idazki hau eta hari erantsitako agiriak aurkeztutzat eta prozedura monitorioa hasteko lehen eskaera hau adierazitzat jo ditzan, eta horren arabera, eskaera hori onar dezan eta PZLaren 815. artikuluari jarraiki, demandatu zorduna ..... euroko guztizko zenbatekoa 20 eguneko epearen barruan ordaintzeko eta ordainketa hori auzitegian egiaztatzeko errekeri dezan, eta horretaz gain, ordaintzen ez badu, eta epaitegira ezezkoa emanagatiko arrazoiak ematera agertzen ez bada, ordainaraziko zaiola ohartaraz diezaion; hori guztia legezkoa da, eta Bilbon .....ea)n eskatu dugu.